

Hiri / Herria :

KANBO

Zerrendaren izena :

NATI DUGUN HERRIA

Zerrenda buruaren izen, abizen eta kontaktuak:

Argita HIRIART-URRUTY

Trantsizio energetikoaren ituna

Euskal Herria 2014 - 2020

Argi dugu, aldaketa klimatikoaren kontra eta trantsizio ekologiko eta energetikoaren alde eragiteak, sekulako premiak direla, eta ondorioz, hautetsi bilakatzen bagira,

GURE ZERRENDAK ONDOKO ENGAIAMENDUAK

BERE GAIN HARTZEN DITU :

(markatu zuen engaiamenduak)

Begiratzen ahal dugun gure programan NATI DUGUN HERRIA . eu - web gunean

Eremu erabilpen zuhurraren lehenestea

(Hirigintza (eta antolaketa), 3. Fitxa - 37. orria)

Azken urte hauetan, Euskal Herriak ezagutu duen biztanleriaren haunditzeari eman zaion erantzuna, hiri eremuen hedatzea izan da. Estrategia horrek garraio beharra, eta ondorioz satsadura maila, haunditu ditu; ber maneran, etengabe eremu naturalak edo laborantza lurak, ttipitu ditu, lurraldearen elikadura burujabetza arriskuan emanez.

Herriko hirigintza dokumentuen berrikusketaren karietarat, gure zerrenda engaiatzen da lehentasuna hiri-berrikuntzari emaiterat eta ez gune natural eta laborantza lur gehiago artifizializatzerat, beharrez lehentasunezko eroste-ekubidea baliatuz (EPFLaren parte hartzea galdatuz).

Eguneroko bizian, mugikortasun modu aktiboak (oinez eta bizikletaz) garatzea

(Mugikortasuna, 3. Fitxa - 44. orria, 5. Fitxa - 46. orria)

Mugikortasun modu aktiboaren aintzinean emaitera, komunikazio indartsu baten bidez, modu hoi erabilpena sustatuz eta hautetsi gisa eredu garri izanez arlo hortan, bai eta ere, ber maneran, modu aktibo horien erabilpena praktikoki segurtatuz. Horretarako, gure zerrenda engaiatzen da motordun ibilgailuei beren abiaduraren ttipitze baten inposatzea - 30 km orduko guneak eta topaketa guneak diren 20 km orduko guneak garatuz - eraketa jarraiki eta segurtatu batzuren plantan emaiterat, txirindularien autoetarik babesteko bide bazterretako segurtasunaren haunditzerat hiriguneetarik kanpo.

Kontsumo energetikoen segipena egitea eta optimizatzea

(Energia, 1. Fitxa - 49. orria)

Herriko Etxeko taldean, energiaz arduratuko den axuanta izanen den kide baten aintzinetik izendatzea baitezpadako. Herriko Etxearen energia kontsumoak erregularki jarraituz, gure herriak bertutezko desmarxa abiatuko du: bere kontsumoaren ttipitzea, lortu diren ekonomien zenbatzea, energia eraginkortasun mailan diren emaitzak hobetzen segituz eta ondotik energia berriztagarriak garatuz.

Ondare eraikiaren birgaitze energetikoa abiaraztea

(Eraikuntzak, 1. Fitxa - 56. orria)

Baitezpadakoa da jada diren egoitzen birgaitzea lehenestea eraikuntza berrien eraikitzeari. Eraikuntza berriek energia eta eremu sobera kontsumitzen dituzte. Birgaitze energetikoak, energia kontsumoaren ttipitzeaz gain, tokiko eta ezin erbesteratutako diren enpleguen sustatzea ahalbidetzen du. Horrez gain, ofizialeak, energia eraginkortasun emaitzak segurtatzen dituzten praktika berri batzuren plantan emaiterat, gomitatzen ditu. Gure zerrenda engaiatzen da beraz, herriko etxearen eraikin guzuen ikuskaritza energetiko baten plantan emaiterat, eta guttienez haletariko baten birgaitze energetiko eraginkorra abiatzea, energia ikuspuntutik «egoitza pasibo» helburuari buruz joanez.



Tokiko zirkuitu laburren garatzea

(Laborantza, 2. Fitxa – 62. orria – Kontsumo arduratsua, 1. Fitxa – 76. orria)

Tokiko zirkuitu laburren garatzeak, garraioen ttipitzea, tokiko ballabideen baloratzea, lurraldearen garapena eta tokiko enplegua sustatzea ditu ondorioztat.

Tokiko, sasoineko eta kalitatezko edo ahal den neurrian biologikoak diren ekoizpenekin elikatzeak jendartearen sustengua zabaldu du. Gure zerrenda engaiatzen da zirkuitu laburren sustengatzerat, eredu-garri bilakatuz sukalde kolektiboetan (eskola, kolegio, lizeo, aisaldi gune eta erretreta etxeetan). Horrela, egitura publiko horiek, agintaldiaren hastapenetik tokiko ekoizpenekin eta biologikoekin hornituak izaiten hasiko dira, %100a lortzea delarik xedea. Agintaldian, eginahalak egiten ditugu laborarien instalazioaren eta birkonbertsio biologikoaren jarraipena egiteko.

ENERCOOP-en harpidedun bilakatzea, %100 berriztagarria den elektrizitate baten alde

(Energia, 2. Fitxa – 50. orria – Kontsumo arduratsua, 2. Fitxa – 77. orria)

ENERCOOP-en harpidetzeak, lehenik herriko egoitza bat edo batzurenzat, kolektibitatea animatzen du NEGAWATT desmar txan murgiltzen: energia kontsumoak ttipitu, energia eraginkortasuna haunditu, energia berriztagarriak garatu. Gure Herriko Etxea ENERCOOP-en harpidedun bilakatuko da.

Bio-hondakinen kudeaketa hobetzea

(Zaborra, 5. Fitxa – 86. orria)

Bio-hondakinek gure zikin ontzien %40a osatzen dute. Berezirik bilduak direlarik, baratze eta laborantza lurren zat kalitatezko konposta bat emaiten ahal dute. Molde bereiztuan egin den bilketa eta tratamendu horrek, zaborren ekoizpenaren ttipitzeari buruz gogoeta zabalago bat bultzatzen ahal du. Gure zerrenda engaiatzen da, konpetentzia duen erakundearekin batean (herri elkargoa, SIVU edo SIVOM...) bio-hondakinen atez ate biltzearen eta haien konpostatzearen plantan emaitzearen ikertzerat, bai eta ere horretarako jendarteak behar duen materiala egokiaren hornitzerat.

EUSKO-aren eragile bilakatzea

(Kontsumo arduratsua, 3. Fitxa – 78. orria)

Tokiko monetaren garapenak ekoizpenaren parte baten bertokiratzea laguntzen du, berotegi efektuzko gasen isurketak ttipituz eta tokiko enplegua eta herrietako eta auzoetako bizi soziala indartuz. Gure Herria Euskal Monetaren Tokiko Kolektibitateen Kolegioari kidetuko da, ikertzeko eta definitzeko, nola, agintaldiaren denboran, eusko-aren erabilpena, herritar eta enpreetan gure lurraldean garatzen ahalko den (informazioaz, komunikazioaz, motibatzeaz, laguntza teknikoaz, tokiko inizatiba zehatzetaz).

BER MANERAN, GURE ZERRENDA ENGAIAITZEN DA KLIMA-ENERGIA ARLOKO UDAL TRESNA KUTXAKO BESTE EKINTZA HAUEN PRAKTIKAN EMAITERAT :

(Milesker gaiaren adierazteaz eta hari lotuak zaizkion ekintza fitxen zenbakiaren zehazteaz)

GAIK	Fitxen zenbakiak

GAIK	Fitxen zenbakiak

